

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3979

1521/2023 EBAZPENA, uztailaren 24koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Oscar Aller García jauna Osakidetzako Emergentsietako zuzendari-gerente kargutik kentzen den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 18ko 732/2020 Ebazpenaren bidez, Oscar Aller García jauna Osakidetzako Emergentsietako zuzendari izendatu zen (2020ko ekainaren 26ko EHAA).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Oscar Aller García jauna, berak hala eskatuta, Osakidetzako Emergentsietako zuzendari-gerente kargutik kentzea, eta, bide batez, egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2023ko irailaren 30eko laneguna amaitzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesatuari, Giza Baliabideen Zuzendaritzari eta Osakidetzako Emergentsietako Zuzendaritzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 24a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.